


## BALOREZKO PROPOSAMENAK

Balio proposamen bat, enpresa batek bezeroei eman diezazkiekeen abantailak emateko baiabide bat da. Hasteko, gure proiektua, berrikuntza bat da, esaterako, Euskal Herrian aurretik existitzen ez den zerbitzu bat delako eta ikastetxean ematen dutenen eta bertan jasotako laguntzaz gain, laguntza gehiago edo behar gehiago duten **ikasleei zuzendutako zerbitzua** eskaintzen dugulako. Ezaguna den **“coaching”** saio batzuen antzerakoa izango da, baina saio horiek arlo desberdinetakoak izan daitezke eta gure kasuan ikasketei buruzko saioak emango ditugu, ikasleak berain ikasketa prozesuan aholkatu, motibatu eta aurrera eramaten laguntzeko. .

Esan bezala, gure ideia, gehien behar duten gazteei edo ikasleei laguntzeko prestatuta dago, hau da, badaude ikasle batzuk, arrazoi desberdinegaitik, laguntza gehigarri bat behar dutenak edo egunerokoan norbait beraien gainean izatea behar dutenak, horregaitik, gure helburu nagusia, bezero horiei **behar besteko laguntza** eskeintzea, guztiz, pertsonalizatua. Hau da, premia dutenean tutore pertsonala beti eskura izango dute eta beharrak asebetetzea izango da.

Esan beharra dago, laguntza edo zerbitzu hau ez dela mota ohikoenean burutuko, hau da, “online” saioak izango dira, beraz, konektatzeko aurretik hitzordua eskatu beharko da eta web orrialde baten bitartez emango da saioa. Bestalde, aipatu beharra dugu, bezero eta irakasleen arteko saioak hasi aurretik, lehen harremana izateko mugikorreko zenbaki bat zabalduko dela edo leku desberdinetan eskura egongo dela.



Proiektuari erreparatuz, honako bauek desberditzen gaituzte beste lehiakideengaitik:

- ❑ **BERRITASUNA:** Aurretik aipatu bezala, gure proiektua, Euskal Herrian behintzat, ez da aurretik existitzen, hau da, orain arte ikastetxeko tutore edo irakasleekin komunikatzen ziren ikasleak baina azken finean, irakasleak ezin ziren ikasle bakoitzaren gainean egon uneoro. Beraz, tutore pertsonala izatea berritasun bat da, zeren eta laguntza gehigarri bat behar duten ikasleak uneoro irakasle bat izango dute beraiekin kontaktuan. Askorek esango dute ea zer desberdintasun dagoen tutore pertsonal eta ikastetxez kanpoko partikularren artean, egia esan batzuentzako berdina edo antzekoak izango dira, baina badaude ikasle batzuk ez dakitenak nola planifikatu lanak egiteko edo ikasteko denbora, hori dela eta, tutore pertsonal hori egunero irakasleren batekin edo ikaslearen ikaskide batekin kontaktuan jarriko da egunerokotasunean zer egiten duten eta zer egin behar duten jakiteko eta horrela bere bezeroari ikasketetara zenbat denbora eskaini eta orduak nola planifikatu erabakitzen lagunduko dio.

- ❑ **PERTSONALIZAZIOA:** Pertsonalizazioari dagokionez, eskainiko dugun zerbitzua bezero bakoitzaren beharretara egokituko da. Esaterako, gure lantokian, irakasle bat baino gehiago izango ditugu lanean eta ikasle bakoitzari irakasle bat hautatzeko aukera emango zaio, izan ere, aukeratutako irakasle horrek emango baitizkio lehen egunetik azken egunerainoko saio guztiak. Saioa gidatuko duten irakasle bakarra izango denez, ikasle bakoitzari, bere ikasketen jarraipena egingo zaio, hau da, momentu osoan bezeroak behar duena egingo dute, adibidez, lanak egin, elkarrekin ikasi, ikasteko denbora planifikatu...
- ❑ **LANA ERRAZTEA:** Gure helburua, bezeroari erraztasuna ematea da, hau da, lan batzuk irakaslearen gain geratu eta ikasleari denbora asko eramaten dion ekintzetan laguntzea. Esate baterako, ikaslearen azterketa datak eta eguneroko lanak zeintzuk diren kontutan hartzea irakaslearen ardura izango da, eta ikasleak ikasgai batean ulertzeko arazoak baditu ere, irakaslearen esku geratuko da ikasgai hortan aurrera egitea ikasleak. Orduan, ulertu gabekoa ulertzea eta denbora planifikatzea irakaslearen esku geratzen badira ikasleari lan kantitatea asko erraztuko zaio eta denbora libre gehiago izango du ikasketekin apur bat ahazteko.
- ❑ **DISEINUA:** Diseinuari dagokionez, gure proiektuak ez dauka zerikusi handirik diseinuarekin, baina komunikazioa mantentzeko modua webgune batetik izango denez, diseinatzearekin lotura dauka gure ideiak. Gure zerbitzuaren informazioa bilatzeko eta kontratazioak egiteko webgune bat izango dugu eta bertan gure informazio guztia eskura egongo da, “online” saioak egiteko ere bertatik moldatuko gara, beraz, ideia aurrera ateratzeko lehenik eta behin diseinatzen aritu beharko gara.
- ❑ **ESKURAGARRITASUNA:** Garai batean ez bezala, gaur egun, edozeinek dauka mugikorra edo ordenagailua internetera sartzeko, hori dela eta, gure zerbitzua edozeinek izango du eskuragarri. Bestalde, mugikorreko zenbaki bat ere izango dugu kontratazioak edota zalantzak argitzeko, beraz, zenbaki hori ere edozeinen eskura egongo da bai webgunean bertan eta baita beste sare-sozial batzuetan ere. Gainera, zerbitzuaren informazioa eskuratzea erraza izango den arren, gehien bat ikasketetan ari diren ikasleentzat zuzenduta egongo da eta horren ondorioz, eskuratzeko modua errazagoa izango da, azkenean ikasleek denbora asko pasatzen baitute interneten kuxkuxeatzen eta baita sare-sozialetan ere.
- ❑ **ERABILERRAZTASUNA:** Erabilera oso erraza izango du, erabiltzeko bakarrik interneten ibiltzea jakitea besterik ez da behar eta ohikoa denez, gazteak egunerokoan erabiltzen dute interneta, orduan ez da zaila izango. Hala ere, norbaiti teknologia mundua zaila egiten bazaio edo “online” saioak nahiko berriak direnez, kosta egiten bazaio, laguntza eskainiko genioke gurekin nola edo hala kontaktuan jartzeko.